



(https://www8.smartadserver.com/click?

imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024045&ckid=9166697791543370771&uii=235133263208836286&acd=1551172720041&pubid=19&tmstp=2778895489&tgt=%24dt%3d1t%3b%2sagasti-sagarrondoak-gurtuz%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus)

Sagastiz sagasti, sagarrondoak gurtuz

(https://www8.smartadserver.com/click?

imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024045&ckid=9166697791543370771&uii=235133263208836286&acd=1551172720041&pubid=19&tmstp=2778895489&tgt=%24dt%3d1t%3b%2sagasti-sagarrondoak-gurtuz%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus)

Aitor Unanuek sagarraren eta sagardoaren bueltako ohiturak ditu hizpide. Ingalaterran mantentzen duten 'Wassailing'-az ari da, besteak beste, artikulua honetan.

📅 2019 (https://urolakosta.hitza.eus/2019/02) (https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/05) (https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/05)

Aitor Unanue

Sagarrondoak landatu, sagar-ipurdiak jorratu, ongarritu eta gerriak kareztatu ohi ditugu garai hauetan. Aldi berean, neguan ere, kalerik kale eta baserriz baserri kopla kantari ibili ohi gara eskean.

Gure atlantiar kulturaren bada, ordea, garai beretsuan sagastiz sagasti kantuan dabilenik. Mozorroak jantzi eta sagastiko sagarrondorik helduena inguratuaz kantuan eta dantzan, zintzarriak eta zartaginak astinduz. Neguko lozorroan den sagarrondoak iratzarri nahian, gaitzak uxatuz eta sortu den Eguberria iragarriaz, hazten baidoa eguna. Uzta oparua eskatzen diete sagarrondoari eta osasuna opa elkarri. Iazko uztaren sagardoa sustraletara bota eta haur txikiak sagardotan bustitako ogi zopak adarretan ezartzen dizkiete, sagastiko txorien gozagarri izango direnak. Erdi Arotik behintzat ba omen datorren ohitura hau Gabon eskearen aitzindari gisa hartzen duenik ere bada.

Ez dira urrutiko kontuak, gurean bezalako inguru berdeetan, flora eta klima berean, itsaso berak bustitzen dituen lurraldeetan; Ingalaterrako hegoaldean bizirik dirau guzti horrek, gure Europako atlantiar kulturaren. *Wassailing* izenez ezaguna da ohitura zahar hori. Txoro haizeak jota daudela esango lukeenik izango da baina, sagarraren lanketa gurean baino biziago mantendu eta garatu dituzte hortik. Gaur sagardo kopuru gehien egiten eta edaten duten lurraldeak dira. Sagardo mota desberdinak lantzen dituzte, bakoitza bere izenarekin. Hartzidura maila ezberdinekoak, gozoak edo lehorrak, nahiz egurrezko kupeletan onduak, apartsuak edo aparrik gabeak, beste fruituen zukuarekin gozatuak, edo gure sagardoaren antzera oinarritzko *hard cyder* edo *farmer cyder* deituak direnak.

Naturatik inoiz ez bezala urrundu garenean, harremanetan sartzeak, osasun iturrirako bidea egiteak eta ezagutzeak, zentzu gehiago hartzen du. Gaur, lurrik gabe ere egiten baidira fruituak, fruiturik gabe ere zukuak, zukurik gabe ere sagardoak.

Azken 7 egunetako irakurrienak



(https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/23/korosagasti-filma-grabatzen-ari-dira-gaur-beizaman/)

📍 Urola kosta

Kultura
(https://urolakosta.hitza.eus/gaiak/kultura/)

'Korosagasti' filma grabatzen ari dira gaur Beizaman
(https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/23/korosagasti-filma-grabatzen-ari-dira-gaur-beizaman/)



(<https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/24/jendetza-elkartu-da-zarautzen-kilometroak-txikia-jaian/>)



Zarautz

(<https://urolakosta.hitza.eus/herriak/zarautz/>)

Jaiak (<https://urolakosta.hitza.eus/gaiak/jaiak/>)

**Jendetza elkartu da Zarautzen
Kilometroak Txikia jaian**
(<https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/24/jendetza-elkartu-da-zarautzen-kilometroak-txikia-jaian/>)



(<https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/23/azpeitiko-kaldereroek-inauteri-giroan-murgildu-dute-herria/>)



Azpeitia

(<https://urolakosta.hitza.eus/herriak/azpeitia/>)

Jaiak (<https://urolakosta.hitza.eus/gaiak/jaiak/>)

**Azpeitiko kaldereroek inauteri
giroan murgildu dute herria**
(<https://urolakosta.hitza.eus/2019/02/23/azpeitiko-kaldereroek-inauteri-giroan-murgildu-dute-herria/>)



(<http://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/>)

HITZA

(<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/>)

izan
HITZA kide!

(<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/>)

Gure berri (<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/gure-berri/>)

Txokoa (<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/txokoa/>)

Eskaintzak (<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/eskaintzak/>)

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu Informazio gehiago

Aleak (<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/aleak/>)



[<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide>]

☎ 943 89 00 17 / 943 81 38 41 (tel:943890017/943813841)

✉ urolakosta@hitza.eus (mailto:urolakosta@hitza.eus)

📍 Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ (<https://www.google.es/maps/search/Araba+kalea+25%2C+20800+-+ZARAUTZ>)

Nor gara (<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/nor-gara-2/>)

f (<https://www.facebook.com/urolakosta.kostakobidea/>)

Cookieak (<https://urolakosta.hitza.eus/cookieak/>)

Pribatutasun politika (<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/pribatutasun-politika/>)

Laguntzaileak



(<http://www.euskadi.eus/hasiera/>)

(<https://www.gipuzkoa.eus/eu/>)

